

gaurko filmak

El gran lío	★
Zuz.: Dan Aykroyd. 90m. EEBB. 1991. 11:00 La 2	
Simbaden zazpigarren bidaia	★★★★
Zuz.: Nathan Juran. 89m. 1958. 15:55 ETB1	
Cultivar los campos salvajes	★
Zuz.: Paul A. Kaufman. 97m. EEBB. 2000. 17:00 T5	
Cita en sundown	★★★
Zuz.: Bud Boetticher. 77m. 1957. 18:30 ETB2	
Les fugeurs	★★
Zuz.: James Lapine. 100m. 1999. 21:00 C+(f)	
La sonrisa de la luna	★
Zuz.: Lorenzo Doumani. 94m. 1998. 21:45 ETB2	
Elegir un amor	★★
Zuz.: Joel Schumacher. EEBB. 1991. 22:00 A3	
Fuera de control	★
Zuz.: Richard Schenkman. 91m. 1998. 23:30 ETB2	
La sombra del intruso	★★
Zuz.: George Hickenlooper. 99m. 1996 23:35 TVE1	
La nuit de la veille de la Saint...	★★
Zuz.: Youri Ilyenko. 70m. 1968. 01:20 Arte	
Charleston	★
Zuz.: Tullio Demicheli. 93m. Esp. 1959. 05:55 A3	
● ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★	
Txarra	Eskasa
Balekoa	Ona
Bikaina	

EL GRAN LÍO
★ **La 2 - 11:00**

Zuz.: Dan Aykroyd. Akt.: Chevy Chase, Dan Aykroyd. 90 min. EEBB. 1991.

Dan Aykroyd aktore arrakastatsuak zuzendari gisa egindako komedia arin honek aktore komertzialak biltzen ditu: Aykroyd bera Chevy Chase, John Candy eta Demi Moore garestien alboan azaltzen da. Abentura zozo samarra izango dute errepidean barrena, gaztetxoak entretenitzeko sortua den film arrunt honetan.

CULTIVAR LOS CAMPOS SALVAJES
★ **T5 - 17:00**

Zuz.: Paul A. Kaufman. Akt.: Joanne Whalley, Sean Patrick. 97min. EEBB. 2000.

40ko hamarkadako Ipar Carolinan girotutako melodrama hunkigarri arrunt hau zenbait aktore ezagunek antzezten dute, baina haien lana ez da nahikoa filma arinagoa egiteko. Arlote gazte bat agertuko da halako batean, eta ho-



DRAMA ★★
La sombra del intruso Zuz.: George Hickenlooper **TVE1 23:35**

Simbaden abentura fantastiko gozagarria

SIMBADEN ZAZPIGARREN BIDAIA ★★★★★ **ETB1 - 15:55**

Zuz.: Nathan Juran. Akt.: Kerwin Mathews, Kathryn Grant. 89 min. 1958.

Fantasiatzko abenturak gustukoak dituzuenok oso tarte atsegina igaroko duzue Simbad itsasgizon mitikoaren zazpigarren bidaiarekin. Simbaden eta bere printzesa maitearen gorabeherak erakusten dituen film klasikoa da, literaturatik hartutako pertsonaia ezagun horren inguruko zinemaratze nabarmenenetakoa. Ekialdean kokatutako amets giroko ipuin ederra Harryhausen maisuaren efektuez apaindutako irudi ederren bitartez erakusten du. Sokura maltzurrak Simbaden neska-laguna ipotxa bihurtuko du, Simbadi xantaia egiteko. Bernard Herrmannen musika ezin aproposagoak indartu egiten du harribitxi hau.

rrek erabat aldatuko du senarra gerratik noiz etorriko zain bizi den emakume baten eta haren alabaren bizitza.

CITA EN SUNDOWN
★★★ **ETB2 - 18:30**

Zuz.: Bud Boetticher. Akt.: Randolph Scott, John Carrol. 77 min. 1957.

Boetticherren *western* txukun hau gustura ikusiko duzue. Diru eta baliabide eskasekin egina dago eta,

hain zuzen, horregatik are handiagoa da haren meritua. Bere buruaz beste egin duen emakume baten alargunari tragedia gainditzea kostako zaio. Pertsonaia hori Randolph Scottek antzezten du, zuzendariaren lankide ohiak; bestelako rol bat jokatzeko lan honetan. Burnett Guffeyren argazki zoragarria azpimarratzeko da.

Ane Muñoz

ELEGIR UN AMOR
★★ **A3 - 22:00**

Zuz.: Joel Schumacher. Akt.: Julia Roberts, Campbell Scott. EEBB. 1991.

Melodrama erromantiko bigun eta hunkigarri samar hau modako zenbait izar garestik antzeztua da. Emakume gazte erakargarri batek bizimodu berri bat hastea erabaki du. Las-ter, ametsetako printzea ezagutuko du. Erraz ikusten da, baina zenbaitentzat aspergarria gertatuko zaizue, ezustekorik ezak eta ohiko eszena arruntek emozio gutxiko filma bihurtzen baitute. Julia Roberts, Campbell Scott eta Vincent D’Onofrio biltzen ditu rol nagusietan.

LA SOMBRA DEL INTRUSO
★★ **TVE1 - 23:35**

Zuz.: George Hickenlooper. Akt.: Joe Mantegna, Kelly Lynch. 99 min. EEBB. 1996.

Intrigazko film poliziako gogor samar hau telebistarako sortu zuten, pantailla handian arrakasta handiz aritzen diren aktore garrantzitsuak biltzen baditu ere. Joe Mantegna eta Kelly Lynch erakargarriek jokatzeko dituzte rol nagusiak.

LA NUIT DE LA VEILLE DE SAINT-JEAN
★★ **Arte - 01:20**

Zuz.: Youri Ilyenko. Akt.: Larissa Kadotchnnikova. 70 min. 1968.

Gauzaleei gomendatu nahi diedan komedia dramatiko honek Piotrek gazte xume eta txiroaren gorabeherak erakusten ditu. Gizon aberats baten alabarekin ezkondu nahi du, Pidorkarekin, baina, hartarako, pertsonaia maltzur batek eskatutakoa bete beharko du aurretik. Berezia da.

ETB-1
06:50: Beakmanen mundua. 07:05: Betimu 07:30: Betizu. Hirukiak II Yogiren taldea. Autobus magikoa. 08:55: Euskal Herriak. 09:30: Arazoak naturan. 10:20: Sorginen laratza. 11:30: Ikusgela. 12:25: Teknopolis. 12:55: Iparraldearen orena. Iparraldeko albistegia. 13:05: Parker Lewisek ez du sekula galtzen. 13:30: Gaur egun. Albistegia. 14:25: Bertatik bertara. 14:55: Hasiberriak. 15:15: Goenkale. 15:55: Zinema. Simbaden zazpigarren bidaia Zuz.: Nathan Juran. Akt.: Kerwin Mathews, Kathryn Grant. 1958. 17:20: Bidaide. Itsas inperioak. 18:15: Otorduan Karlos Argiñano. 18:45: Betizu. Papyrus. X taldea. Betimu onenak. 20:28: Gaur egun. 21:10: Bertatik bertara. 21:40: Goenkale. 22:20: Hasiberriak. 22:50: Sorginen laratza. 00:00: Esanak esan. 00:35: Dinamita. 01:00: Bakarrik. 03:00: Bertatik bertara. 03:20: Mexikon barrena. 03:50: Algara. 04:20: Ikusgela. 04:50: Herri musika sorta. 05:35: Beni eta Marini. 06:05: E-klipse@. 06:35: Ikusbit.

ETB-2
07:15: Del pais de los vascos. 07:50: Europa europa. 08:20: Cafe co-media. Radio noticias. El show de Jeff Foxworthy La niñera. 09:30: El Punto. Gonbidatua: Gaspar Llamazares. 10:00: Forum. Gonbidatua: Juan Manuel Rodriguez. 10:30: Vida salvaje. Dokumentala. 10:40: Clasicos en serie. 12:30: La cocina de Pedro Subijana. 12:45: La ley de la bahia. 13:40: Euskadi directo. 13:40: Navarra directo. (Nafarroan) 14:05: Hospital 14:28: Teleberri. Albistegia 15:20: Lo que faltaba. 18:30: Zinema. Cita en sundown. Zuz.: Bud Boetticher. Akt.: Randolph Scott. 1957. 20:00: Esta es mi gente. 20:58: Teleberri. 21:45: Zinema. La sonrisa de la luna Zuz.: Lorenzo Doumani. Akt.: Ted McGinley 1998. 23:25: Zinema. Fuera de control Zuz.: Richard Schenkman. Akt.: Michael Pare. 1998. 01:15: Medias de seda. 03:20: Mas alla del limite. 04:00: Lo que faltaba. 07:15: Amaiera.

TVE1
06:00: Canal 24 horas. 07:30: Telediario matinal. Albistegia. 09:00: Los desayunos de TVE Gonbidatua: Leire Pajin.. 09:50: Maria Emilia. Telesaila. 11:30: Saber vivir. Osasunari buruzko saioa Manuel Torreiglesiasek aurkeztua. 12:45: Asi son las cosas. 14:00: Informativo Territorial. Albistegia. 14:30: Corazón de Primavera. Anne Igartiburuk aurkeztutako saioa. 15:00: Telediario 1. Albistegia. 16:00: El tiempo. 16:05: El secreto. Telesaila. 16:35: Terra Nostra. Telenobela. 18:45: El precio justo. Lehiaketa. 20:00: Gente. Sonia Ferrer eta Pepa Buenok aurkeztutako saioa. 21:00: Telediario 2. Albistegia. 21:40: Futbola. Espainia - Japonia. 22:35: Zinema: La sombra del intruso Zuz.: George Hickenlooper. Akt.: Joe Mantegna. 1996. 01:30: Telediario 3. Albistegia. 02:00: Mentes peligrosas. Telesaila. 02:55: Corazon de Primavera. Errepikapena. 03:20: Nano. 05:20: Gente.

A3
07:15: Historias de infoville. Telesaila. 07:35: Club Megatrix Garrapata. Ace aventura. Flint. Marco. 09:30: El primer cafe. 10:30: Como la vida. 13:25: Hermanos de leche. Telesaila. 13:55: Sabrina. Telesaila. 14:30: Los Simpson. Marrakzi bizidunak. 15:00: Antena 3 Noticias . Albistegia. 16:00: Sabor a ti. Magazina. 19:15: Ahora. 20:00: Pasa Palabra. Lehiaketa. 21:00: Antena 3 Noticias 2. Albistegia 22:00: Zinema. Elegir un amor Zuz.: Neema Barnette. Akt.: Richard Griego, Cynthia Gigg. 1994. 00:25: Especial informativo. Trafico de armas II. 01:15: Curvas peligrosas. 01:30: Antena 3 Noticias. Albistegia. 02:00: Rumbo al sur 03:00: Televenta. 05:55: Zinema: Charleston Zuz.: Tullio Demicheli. 1958.

irratia



RADIO EUSKADI. Gaur goizean EAko diputatu Begoña La-sagabaster elkarrizketatuko dute *Boulevard* irratsaioan. *En profundidad* atalean, berriz, Ruandan 1994an gertatutako genozidioaz eta Afrikako herrialde horretan den egoeraz mintzatuko dira. Gaiaz hitz egiteko, Bartolome Burgos CIDAFeko zuzendaria, Josetxu Kanibe de los Ríos aldizkariko zuzendaria eta bi urtez Ruandan egon den Mariasun Ortiz de Urbina gonbidatuko dituzte. *Boulevard magazine* atalean, Jean Michel Malpoix idazle frantziarra elkarrizketatuko dute. Bestalde, Gernikako bonbardaketaren urteurrenaren inguruko ekitaldiez ari-

tuko dira antolatzaileekin. Arratsaldeko 18:00etan, *La jungla sonora* irratsaioan, Portugalgo musika izango da protagonista.

HERRI IRRATIA. Mikel Asurmendik Ur Apalategi idazle lapurtarra elkarrizketatuko du gaur gaueko 23:00etan, *Ko-matxo artean* irratsaioan. Euskal idazlearen sorrera aztertu du Apalategik bere tesian, tartean Bernardo Atxagaren problematika literarioaren bilakabidea. Ohiko atalek osatuko dute Donostia, Gasteiz eta Loiolako Herri Irratian entzun daitekeen saioa.